

ASMAKIZUNAK

1. Botilaren muturrean naukazu eta ezinezkoa da ene edatea, baina ene libratzeko hobe duzu bi ezpainen ongi hestea. Zer da?
2. Gona luzea du, mihia motza, urrundik entzuten da haren kantu hotsa. Zer da?
3. Harpe-zilo hori beti dago hezea, hesi zuriz inguratua, han bizi da herensugea. Zer da?
4. Zuri-zuri eta biribil, iluntasuna delarik dabil. Zer da?
5. Uniformedun gerlari zuri eta gorriak, gerla bukatzean, aldiz, buru beltz eta erreak. Zer da?
6. Gorputz mehe eta luze, mintzo naiz ahorik gabe. Zer naiz?
7. Bi zango izanik ere, ezin dugu biderik burutu, baina gizona gu gabe ezin da nehon ere aurkeztu. Zer gara?
8. Aitzinean punta bat. Gibelean zilo bat. Zer da?
9. Mendian, berde. Zakuan, beltz. Sutan, gorri. Zer da?
10. Bi ama eta bi alaba, ondo kalkulatzeko baldin baduzu, ez dira lau, hiru baizik. Nor dira?
11. Orratz berezia naiz. Gailurretan naiz nagusi, baina sekula ez dut haizerik josi. Zer naiz?
12. Gauza honek alaitzen ditu tristeak, musika eta berriak emanez gelditu gabe. Zer da?
13. Ahoa zabaldu dit, begitxoak hetsi, aski lo egin ezean, ezin diot iharduki. Zer da?
14. Zotz ttipia gainean du gorpila, igarkizun (asmakizun) honetan badira pila. (9) Zer da?
15. Parisko dama handia XIX. mendean sortua, behetik goraino hezurdura (eskeletoa) ikusten zaio. Zer da?
16. Tiro eginik ere zauririk ez, sudurra berriz minez. Zer da?
17. Berdea du azala, haragia gorri, beltzak dira berriz, barneko zenbait hazi. Zer da?

18. Hogeita lau haurride, batzuk egunez, besteak gauez, hogeita lau anai-arreba, segidan (jarraian) zernahi gisaz (nahi ala ez). Zer dira?
19. Biziki ongi zaintzen dut etxea, ez dut zaunkarik egiten baina hortzak baditut. Zer naiz?
20. Bi nini doaz parean ezin elkarri begiratzuz. Zer dira?
21. Mahai gaineen ateratzera ohituak dira, ez dira jaten ez eta edaten ere, bai aldiz, mozten eta banatzen. Zer dira?
22. Denek zapaltzen (lehertzen) naute baina nik ez dut nehor zapaltzen. Denek galdetzen dute non nagoen eta nik ez dut galdetzen non dauden. Nor naiz?
23. Aita zabala, bera arina; batzuetan zaratatsu (harrabotsa edo azantza egiten), anitzetan negartsu. Zer da?
24. Sekula ez ageri, eta nonahi firi -firi, harrapaezin, eta hura gabe ezin bizi. Zer da?
25. Binperrez (ifrentzuz, alderantziz) naiz, neguan biluzik eta udan arropaz beterik. Nor naiz?
26. Agertu eta desagertu, desagertu eta agertu, karrikan daramat nigandik beti gertu. Zer da?
27. Baginela eta bagara, bi ahizpa bikiak; gu aitzinean ezarrita hobeto ikusiko dituzula gauza guzi-guziak. Zer dira?

Erantzunak:

- | | |
|---------------------------|-------------------|
| 1. B letra | 15. Eiffel dorrea |
| 2. Ezkila | 16. Puzkerra |
| 3. Ahoa | 17. Ur-meloia |
| 4. Ilargia | 18. Orenak |
| 5. Supiztekoak | 19. Giltzak |
| 6. Idazluma | 20. Begia |
| 7. Galtzak | 21. Kartak |
| 8. Orratza | 22. Bidea |
| 9. Ikatza | 23. Zerua |
| 10. Amatxi, ama eta alaba | 24. Haizea |
| 11. Haize -orratza | 25. Zuhaitza |
| 12. Irratia | 26. Itzala |
| 13. Logalea | 27. Begi-lagunak |
| 14. i letra | |

